



SUPERNOVA • Erresuma Batua

Harry Macqueen (zuzendaria, gidoilaria)
Emily Morgan eta Tristan Golligher (ekoizleak)

SERGIO BASURKO

Supernova lehertzeraz doazen izarek deritzaie. Izan ere, izar batek ez-tanda egiten duenean ehun mila edo milioi bat aldiz handitzen baitu bere argitasuna; hala, izar hil berria egun batzuetan galaxia bat bezain argitsu izaten da. Azalpen horrek, alde bate-tik, *Supernova* izenburuaren zergatia argitzen du, eta, bestetik, filmeko bi protagonistetako baten heriotzaren metafora moduan funtzionatzen du.

Sam eta Tusk urte luzez elkarrekin bizi diren bi gizon heldu dira eta auto-karabana batean ikusiko ditugu pelikularekin hasieran. Road movie estilora egituraturutako pelikula honek, horrelakoetan ohikoa den moduan, protagonistak eramango ditu beraien bizitzetan aldaketa garrantzitsuetarako prestatzera. Izan ere, Tuskek (Stanley Tucci), gradualki memoria galaraziko dion gaixotasun bat dauka, filmaren lehen pasarteetan ikusiko dugun bezala. Hortik aurrera, bikotearen egunerokoan murgilduko gara, espero zitekeen guztia ikusiz: nola Samek (Colin Firth) bere bikotekidearen ondoan egon nahi izango duen unero, hura babestu eta, neurri batean bere ondoan eduki; baina nola Tuskek ez duen horrela bizitzaren jarraitu nahi. Hainbat gorabeheraren ondoren Firthen pertsonaia onartu beharko du maite duen pertsonari joaten utzi behar diola

Supernova ikerketa prozesu luze eta murgiltzaile baten emaitza da. "Lankidetzan estuan aritu nintzen Erresuma Batuko demenziako espezialista nagusiekin. Gainera, gaixotasunak jotako pertsona askorekin eta haien familiekin hitz egin nuen. Badakit honako gaia ukitzen duten film askotxo badaudela, baina nik beste ikuspegi bat ematen saiatu naiz, errepideko film batena, alegia", adierazi du zuzendariak.

*Supernova*ko pertsonaiez atenzioa ematen duen gauzetako bat ez-



Harry Macqueen zuzendaria Kurasaaleko izarbidean behera.

JORGE FUENBUENA

Harry Macqueenek bizitzaz, maitasunaz eta heriotzaz dihardu bere filmean

tabaida sutuen ondoren gertatzen diren isiluneak dira. "Hogei urtez maiteminduta bizi diren pertsonak maiz ez dute hitz egin beharrik elkar ulertzeko", argudiatu du Macqueenek, "Tusk eta Samen artekoak isilune ozenak dira, guztiz esanguratsuak".

Burua galtzen ari den pertsonaia lehenbiziko aldiz noraezean agertzen denerako, gutxi gorabehera igarri liteke ondoren etorriko den guztia, da-

goeneko gaitz degeneratiboak agertzen diren pelikuletan ohiko samarrak bihurtu diren eszenak bane. Nolanahi ere, erdipurdiko pelikula izatetik salbatzen duena aktoreen lana da: Firth sekulako aktore puska da, azken hamarkadetan zinema britainiarrean ikusi dugun onenetako bat, eta emozioa ziplo sentiarazten dio ikusleari.

Colin Firth eta Stanley Tucci aktoreen jardunaz ere mintzatu da zuzen-

daria: "Zoragarria izan da beraiekin lan egitea. Aspalditik ezagutzen dute elkar eta horrez gain lagun minak dira. Benetako plazera izan da beraiekin lan egitea eta haiengandik ikastea".

Aipatu, azkenik, paisaia eta paraje ederrak ikusten direla *Supernova* ekoizpenean; hain zuen ere, Ingalaterra iparraldeko The Lake District eskualdekoak, poeta ingeles erromantikokoek horrenbeste maite zituztenak.

A star burns brightest before it dies

Yesterday in the Official Selection the British director Harry Macqueen presented *Supernova*, a touching road movie about a middle-aged gay couple facing an existential crisis. He explained that the process of making the film had involved a long period of intense research about dementia that had been a profoundly moving experience for him, and that he had focused on a couple in their 50s because he felt that love at this age was not often touched on in cinema

Asked about the use of silence in his film, he said that the power of cinema was often based on it being a visual medium so he had tried to let the images tell the story. He also explained that although *Supernova* explored big themes like love, life and death, what it was really about was the universality of the human experience.

As for the title of his film, Macqueen felt that the title literally represented Stanley Tucci's character, in that a star burns most brightly at the end of its life. He was also full of praise for his two leading actors: the fact that Colin Firth and Stanley Tucci were good friends meant that the personal chemistry between them was already there and all he had needed to do was to shape the love they had for each other and streamline it.

POSTIGO

Fernando Postigo
Argazki Bilduma

Fondo Fotográfico
Fernando Postigo

Fonds photographique
Fernando Postigo

Fernando Postigo
Photographic Collection

Garai baten kronika
Crónica de una época
Chronique d'une époque
Chronicle of an era

Erakusketa / Exposición
Exposition / Exhibition
2020.07.30 - 2020.11.01

San Telmo
Museoa



ANTOLATZAILEAK / ORGANIZAN

ERAKUNDE BARRERAK / SOCIOS INSTITUCIONALES

PATRONO PRIVATUAK / PATRONOS PRIVADOS

STM
San Telmo Museoa

10000
CONGOSTIA
SAN SEBASTIAN

donostia
kultura

ELDIARI VASCO

ELDIARI VASCO

ELDIARI VASCO

ELDIARI VASCO

ELDIARI VASCO

ELDIARI VASCO

ELDIARI VASCO

ELDIARI VASCO

ELDIARI VASCO

ELDIARI VASCO

ELDIARI VASCO

ELDIARI VASCO

ELDIARI VASCO

ELDIARI VASCO

ELDIARI VASCO

ELDIARI VASCO

ELDIARI VASCO

ELDIARI VASCO

ELDIARI VASCO